

## Haur eta Gazte Literatura "prestigiatzea" du xede 'Behinola'-k

### Literaturaren alor hori jorratzen duen euskal aldizkari bakarra da 'Behinola'

Iruñea. Euskal Haur eta Gazte Literatura sustatzeko Galtzagorri elkarte donostiarrak urtean bitan plazaratzen du Behinola aldizkaria. Argitalpenaren koordinatzaile Ruben Ruizen aburuz, "euskal Haur eta Gazte Literatura prestigiatzea, literatura horren berri zabaltzea, korpusa osatzen joatea, nobedadeen jarraipena egitea, eta Galtzagorri Elkarateak egiten dituen ekintzen berri ematea", dira aldizkariaren helburu nagusiak.

Behinola ren lehenengo zenbakia 1999eko azaroan argitaratu zen. Ruizek aldizkaria sortzearen arrazoiak aipatu ditu: "Merkatua ikusita ez zegoen, eta egun ez dago (Behinola kenduta, jakina) beste aldizkaririk Euskal Haur eta Gazte literatura jorratzen duenik; hortaz, hori izan zen Behinola sortzearen arrazoi nagusia, zegoen gabezia (modu oso duinean emaitzak ikusita) betetzea".

14 ale kaleratu dituzte jadanik eta une honetan 15. alea prestatzen ari dira, Ruizek jakinarazi duenez. "Lehenengoa apirila-ekaina aldera ateratzen ohi da eta bigarrena azaroa-abendua tarte horretan", esan du.

Azken zenbakia "liburutegien gainean burutua" dagoela ohartarazi du Ruizek. Bertan, Arantza Baltzategi, Charo Urrutia eta Ixiar Etxebarriarekin (eskola liburutegien arduradunak hirurak) egindako mahai inguru "mamitsu" bat azaltzen da. Horretaz gain, Asun Agirianok, Arantza Arzamendik eta Concha Chaosek egindako "artikulu interesgarriak" aurki daitezkeelaren berri eman du koordinatzaileak. "Emakume horiek Arrasateko liburutegiko liburuzaina, Eusko Jaurlaritzako liburutegien arduraduna eta Donostiako Haur liburutegiaren zuzendaria da", zehaztu du. Erreseinen txokoaz gain, azken alean Gonzalo Mourek bere esperientzia kontatzen du Sahara aldera Bibliobus bat bidaltzeko.

Halaber, eduki idatzietaz aparte, Behinola bakoitza ilustratzaile baten irudiez hornituta dago. Modu horretan, literaturan "hain leku garrantzitsua" betetzen duen ilustrazioari garrantzia emanez, Ruizek jakinarazi duenez.